



815/2017, de 29 de diciembre

ERABAKIA

Diputatu Nagusiaren Saila
Esp. zk.: 46/2017

Arabako Foru Aldundiaren 2018. urteko Araugintza Plana onartzea.

Maiatzaren 23ko Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, I. eranskineko 4. artikuluan xedatzen duenez, Arabako Foru Aldundiak araugintza plana onartuko du eta aditzera emango du. Hurrengo urteko ekitaldian onartzeko proposatu nahi dituen foru araugintzako ekimenak eta orokorreko izaerakoak jasoko ditu plan horretan.

Hori dela eta, foru aldundiak araugintza plan bat egin du, ustez Foru Gobernu Kontseiluan, kopuru eta izendapenen arabera, aurkeztuko diren ekimenak jasotzen dituenak, 2018ko ekitaldian onar dadin, beteta horrela oinarritzeko araudiak eta 29/2017 Foru Dekretuak sartzen dituzten araugintza plangintzaren betekizunak babesten dituzten araupetze egoki, segurtasun juridiko eta gardentasun printzipioak.

2018ko Araugintza Plan hura Arabako Foru Aldundiaren egitura organikoaren arabera gauzatzen da eta aldundiko sail bakoitzak Gobernu Kontseiluan aurkeztu nahi diren arau ekimenei buruz eman duen informazioa jasotzen du. Hasieran jakinean egon eta 2018an zehar onar dadin.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, eta

ACUERDO

Departamento de Diputado General
Nº Expte.: 46/2017

Aprobación del Plan Anual Normativo de la Diputación Foral de Álava correspondiente al ejercicio 2018.

El Decreto 29/2017, del Consejo de Gobierno Foral de 23 de mayo, que aprueba el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general, las guías para la elaboración de los informes de impacto normativo y de impacto de género y las directrices de técnica normativa, establece en el artículo 4 de su Anexo I que la Diputación Foral de Álava aprobará y hará público un plan normativo referido a las iniciativas normativas forales y de carácter general que tenga previsto proponer para su aprobación durante el ejercicio anual siguiente.

Por ello, la Diputación Foral ha elaborado un plan normativo que contiene las iniciativas que previsiblemente, en cuanto a número y denominación, va a ser elevadas al Consejo de Gobierno Foral para su aprobación durante el ejercicio 2018, dando así cumplimiento a los principios de buena regulación, seguridad jurídica y transparencia que fundamentan las exigencias de planificación normativa introducidas por la normativa básica y por el Decreto Foral 29/2017.

El citado Plan Anual Normativo de 2018 se articula de acuerdo con la estructura orgánica de la Diputación Foral de Álava y contiene la información proporcionada por cada departamento foral sobre las distintas iniciativas normativas y reglamentarias que se pretenden elevar al Consejo de Gobierno para su conocimiento inicial y aprobación durante el año 2018.

En su virtud, a propuesta del Diputado General, y





Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe hartu den

previa deliberación del Consejo de Gobierno Foral en sesión celebrada en el día de hoy,

ERABAKIA

ACUERDO

Lehenengoa. 2018ko Araugintza Plana onartzea.

Arabako Foru Aldundiaren 2018rako Araugintza Plana onartzen da. Erabaki honen eranskinean jasotzen da haren testua.

Primero. Aprobación del Plan Anual Normativo de 2018.

Se aprueba el Plan Anual Normativo de la Diputación Foral de Álava para el año 2018, cuyo texto se incorpora como Anexo del presente acuerdo.

Bigarrena. Planean sartu ez diren proposamenak.

Foru Gobernu Kontseiluan planaren barruan ez sartu ez den arau proposamen bat aurkezten denean, hura izapidetu beharra eta haren urgentzia justifikatu beharko da xedapen hori egiteko prozedurari hasiera ematen dion ebazpenean.

Segundo. Propuestas no incluidas en el Plan.

Cuando se eleve al Consejo de Gobierno Foral una propuesta normativa o reglamentaria que no figure en el Plan se deberá justificar la urgencia o necesidad de su tramitación en la resolución de incoación del procedimiento de elaboración de dicha disposición.

Hirugarrena. Ebaluazio txostena.

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzak 2019ko lehenengo hiruhilekoan txosten bat egingo du, non islatuko diren planaren betetze maila, barne hartuta hasieran sartuta ez zeuden baina hartu diren ekimenak, eta ekitaldian zehar aurkeztu ez zirenen justifikazioa.

Tercero. Informe de evaluación.

La Dirección del Gabinete del Diputado General elaborará, en el primer trimestre de 2019, un informe en el que se refleje el grado de cumplimiento del Plan, incluyendo aquellas iniciativas adoptadas que no estaban inicialmente contenidas en el mismo y la justificación de las que no fueran elevadas durante el ejercicio.

Laugarrena. Argitaratzea.

2018ko Araugintza Plana argitara emango da Arabako Foru Aldundiaren "Gobernu Irekia" atarian.

Cuarto. Publicación.

El Plan Anual Normativo de 2018 se publicará en el Portal de Gobierno Abierto de la Diputación Foral de Álava.

Vitoria-Gasteiz.

Ramiro González Vicente
Diputatu nagusia
Diputado General

Nekane Zeberio Ganzarain
Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaria
Directora del Gabinete del Diputado General

ERANSKINA

ARABAKO FORU ALDUNDIAREN 2018. URTEKO ARAUGINTZA PLANA

DIPUTATU NAGUSIA

FORU ARAU PROIEKTUAK

- Foru arau proiektua, indargabetzen duena martxoaren 20ko 10/1995 Foru Araua, Arabako Foru Aldundiaren administrazio isiltasunaren araubidearena
- Foru arau proiektua, indargabetzen duena maiatzaren 30eko 17/1993 Foru Araua, Foru Aldundiaren zigortze erregimena araubidearena.
- Foru kargu publikoak arautzen dituen foru arau proiektua.
- Foru arau proiektua, arautzen duena Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoa.

FORU DEKRETUAK

- Foru dekretua, arautzen dituena Arabako Lurralde Historikoko herritarrek eta interes jakin batzuk ordezkatzeko dituzten taldeek parte hartzeko eta lankide izateko erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua.
- Foru dekretua, arautzen dituena herritarrek parte hartzeko eta laguntzeko baliabideak antolatzeko prozedurak.
- Foru dekretu, Arabako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako koordinazio egituren sorrera, eraketa eta funtzionamendua arautzekoa.
- Foru dekretu, giza eskubideen eta memoria historikoaren arloan ematen dituen dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzen dituena.

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKA

FORU ARAU PROIEKTUAK

- Foru arau proiektua, aldatzen duena martxoaren 20an 11/1995 Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuek arautzen duena.
- Foru arau proiektua, arautzen duena Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa.
- Foru arau proiektua, aldatzen duena Azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua, Kuadrillena.

FORU DEKRETUAK

- Foru dekretua , onartzen dituen Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzaren eskumen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri-arauak.
- Foru dekretua, onartzen duena Arabako Lurralde Historikoko Lurralde Larrietarako Plana.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTUAK

FORU ARAU PROIEKTUAK

- Foru arau proiektua, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubidearena.
- Foru arau proiektua, Arabako Lurralde Historikoko Ondarearena.
- Foru Arau Proiektua, Arabako Lurralde Historikoko 2019 urterako aurrekontuaren exekuzioarena.
- Foru arau proiektua, onartzen duena Arabako Lurralde Historikoaren 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorra.
- Foru arau proiektua, berresten duena Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren, Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundien arteko lankidetzaren hitzarmena, berehalako informazio hornidurarako errola instrumental bat eratzeari buruzkoa.

ARAUGINTZAKO FORU DEKRETUAK

- Araugintzako foru dekretua, onartzen duena tasa eta prezio publikoak onartzen duen Foru Arauaren testu bategina.
- Araugintzako foru dekretua, onartzen duena toki ogasuna arautzen duen Foru Arauaren testu bategina.
- Araugintzako foru dekretua, onartzen duena ondasun higiezinaren gaineko zerga onartzen duen Foru Arauaren testu bategina.
- Araugintzako foru dekretua, onartzen duena Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga onartzen duen Foru Arauaren testu bategina.
- Araugintzako foru dekretua, onartzen duena trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zerga onartzen duen Foru Arauaren testu bategina.
- Araugintzako foru dekretua, onartzen duena eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga onartzen duen Foru Arauaren testu bategina.
- Araugintzako foru dekretua, onartzen duena hiri lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga onartzen duen Foru Arauaren testu bategina.

FORU DEKRETUAK

- Foru dekretua, zehazten dituena 2018 urtean lehentasuna izango duten mezenasgo jarduerak.
- Foru dekretua, aldatzen duena 15/2010 foru dekretua, apirilaren 13koa. Arabako Foru Ogasunaren aurrean, zergen arloan, zenbait izapide eta jarduera egiteko emandako borondatezko ordezkariaraz arautzen da eta Borondatezko Ordezkarien Erregistroa sortzen dena.
- Foru dekretua, onartzen duena TV 620 inprimakiaren eredu berria. Inprimaki hori da Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren menpe dauden erabilitako ibilgailuen eskualdaketerako aitorten-likidaziorako erabiliko dena.
- Foru dekretua, aldatzen dituena Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergen jasotzen diren lan etekinen gainean egin beharreko atxikipenen ehunekoak.
- Foru dekretua, aldatzen duena 66/2003 foru dekretua, abenduaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena. Ondare Eskualdatzeen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Arautegia. onartzen duena.
- Foru dekretua, onartzen duena ibilgailu automobilen eta ontzien salmentako batez besteko prezioak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren ondorioei, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren ondorioei eta zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren ondorioei begira.
- Foru dekretua, onartzen duena Arabako Lurralde Historikoaren Dirubilketarako Araudia.
- Foru dekretua, aldatzen duena Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Arautegia, 18/2017 Foru Araua, irailaren 20koa, Arabako zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilera egokitzekoa.
- Foru dekretua, zenbait zergaren arautegiak aldatzen dituena, zenbait zerga aldatzeari buruzko foru arauaren proposamena onartzearen ondorioz, Batzar Nagusiek hala erabakitzen badute.
- Foru dekretua, aldatzen duena urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua, zergadunen eroldari eta horren inguruko betebeharreari buruzkoa.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOA

FORU DEKRETUAK

- Foru dekretua, onartzen duena Arabako Foru Aldundian aplikatuko den Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana seigarren plangintzaldirako. (2018-2022).

NEKAZARITZA

FORU DEKRETUAK

- Foru dekretua, Arabako Lurralde Historikoan labore alternatiboetarako laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dituena.

- Foru dekretua, tokiko azoka eta merkatuetan nekazaritzako produktuak merkaturatzen dituzten ekoizleen errola arautzen duena.
- Foru dekretua, Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritza Lurren Funtza sortzen duena.
- Foru dekretua, onartzen duena Arabako Lurralde Historikoko Mahastien Erregistroan egiten diren kudeaketek bete behar duten araudia.
- Foru dekretua, aldatzen duena 14/2016 Foru Dekretua, basogintza atalen egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa (jardun esparruari dagozkionak, kasu justifikatuetan).
- Foru dekretua, onartzen duena Nekazaritza ustiatzearen eta landa bideen sarbideetarako laguntzak arautzen dituzten oinarriak, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapenerako Planaren baitan; baita laguntza lerro deialdia ere.
- Foru dekretua aldatzen duena , nekazaritza, ingurumen eta klima laguntzak eta nekazaritza ekologikoko laguntzak arautzen dituzten oinarriak, zeinak ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren bidez onartu baitziren, eta onartzen duena laguntza lerro horren deialdia.
- Foru dekretua, aldatzen duena 37/2016 Foru dekretua, maiatzaren 10eko, Euskal Herriko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren baitan, lurralde historiko honetan muga naturalak edo espeziako dituzten zonetako nekazaritza ustiatzei laguntzeko oinarri arauak eta haren deialdia.
- Foru dekretua, aldatzen duena 31/2016 Foru Dekretua, apirilaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Planaren 2015-2020 plangintzaldiaren baitan nekazaritza ustiatzearen inbertitzeko laguntzak arautzen dituen oinarriak onartzen dituena, eta onartzen duena laguntza lerro horren deialdia.
- Foru dekretua, aldatzen duena 30/2016 Foru Dekretua, apirilaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Planaren 2015-2020 plangintzaldiaren baitan nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzen dituena, eta onartzen duena laguntza lerro horren deialdia.
- Foru dekretua, aldatzen duena 12/2017 Foru Dekretua, martxoaren 14koa, zeinaren bidez onesten baitira lurralde historiko honetako nekazaritza ustiatzei beren osasun arriskuak estaltzen dituzten abeltzaintza aseguruak kontratatzen laguntzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak eta laguntza horien 2018rako deialdia aldatzen duen foru dekretua.
- Foru dekretua, arautzen duena Basogintza Kudeaketa Jasangarriko Plan Teknikoen (BKJPT) eta Basogintza Kudeaketa Jasangarriko Plan Soilen (BKJPS) edukia, onarpena, indarraldia eta jarraipena.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNA

FORU ARAU PROIEKTUAK

- Foru arau proiektua, Arabako Lurralde Historikoko Errepideena.
- Foru arau proiektua, berresten duena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Gasteizen autobus elektriko adimenduna ezartzekoa.

- Foru arau proiektua, ezartzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzarako esparru hitzarmena, Arabako mugikortasun agintaritza sortzeko.

FORU DEKRETUAK

Foru dekretua, aldatzen duena Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 15/2016 Foru Dekretua, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duena.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

FORU ARAU PROIEKTUAK

- Foru arau proiektua, onartzen duena Arabako Lurralde Historikoko hiri hondakinen kudeaketa (2017-2030).
- Foru arau proiektua, berresten duena Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetz hitzarmena, Araba erdialdeko eta Guardiako (Arabako Errioxa) lurralde plan partzialen berrikuspen agiria egiteko dena.
- Foru arau proiektua, onartzen duena Arabako Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Arloko Lurralde Plana (2018).

EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA

FORU ARAU PROIEKTUAK

- Foru arau proiektua, berresten duena Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetz hitzarmena, Ignacio Alcecoa kultur etxea Euskadiko irakurketa publikoaren sarean sartzekoa.

FORU DEKRETUAK

- Foru dekretua, sortzen duena Arabako Kultura Plan Estrategikoaren Koordinazio Orokor eta Jarraipen Mahaia, Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren aholkulari eta argibide-emaile izan dadin, bai eta ere ezartzen dituen haren egitura, eraketa eta eginkizunak.
- Foru dekretua, Gazteriaren Foru Erakundeak 2019an aterpeetan eskainitako zerbitzuengatik eta jarduerengatik ordaindu beharreko prezio publikoen arautegia onartzen duena.
- Foru dekretua, Gazteriaren Foru Erakundeak 2019rako sustatutako dituen ikastetxeen jarduera dela-eta aplika daitezkeen kuota onartzen duena.
- Foru dekretua, onartzen duena Arabako Foru Aldundiko museoetan antolatutako udalekuen prezio publikoak eta horietan izena emateko kuotari buruzko arautegia.

GIZARTE ZERBITZUAK

FORU DEKRETUAK

- Foru dekretua, zehazten dituena adineko pertsona ezinduentzako egoitza zerbitzuak hitzartzeko bete beharreko baldintzak.
- Foru dekretua, onartzen duena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko langileen lan baldintzak, lanaldiari, oporrei eta baimenei dagokiona.
- Foru dekretua, onartzen duena 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten Arabako Lurralde Historikoko udalantzako laguntza deialdia, gizartegintzako jarduera eremuaren barruko programak eta/edo jarduerak garatzen laguntzekoa.
- Foru dekretua, arautzen duena premiazko egoeratarako dirulaguntza bereziak.
- Foru dekretua, aldatzen duena Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretua, uztailaren 22koa, arautzen duena mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere.
- Foru dekretua, aldatzen duena Diputatuen Kontseiluaren 4/2016 Foru dekretua, urtarrilaren 26koa, zeinaren bidez arautzen baitira Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eskaintzen dituen zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak.
- Foru dekretua, aldatzen duena Diputatuen Kontseiluaren 22/2014 Foru Dekretua, apirilaren 15koa, onartzen duena familia harrerari babes emateko eta, horren ostean, jarraipena egiteko prestazio eta laguntza ekonomikoak arautzen dituen arautegia.